

HIKEA

ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

ZER DA HIKEA?

HIKEA (Hizkuntza Kontsultak Egiteko Aplikazioa) [EiTBren hizkuntza-ezagutza kudeatzeko aplikazioa da](#).

HIKEAk lau atal ditu.

1. Hiztegi bilaketa: [hiztegi orokorra](#), hedabideetan ageri eta erabiltzen diren hitzak, [terminologia](#)
2. Argibideen bilaketa: hedabideetako hizkeraren [gramatika](#), eskuliburu gisa aurkeztuta
3. Esapideen hiztegia: [esaerak](#), esaldi eginak, lokuzioak
4. Pastoralen hiztegia: pastoraletan ageri diren hitzak

HIZTEGI BILAKETA

Kontsultatu nahi duzun hitza dagokion hizkuntzaren [laukian](#) idatzi behar duzu. Ondoren «[bilatu](#)» botoia sakatu.

[Ez da behar azenturik](#), [dieresirik](#) eta bestelako zeinu diakritikorik jartzea. Aplikazioak diakritikoekin zein diakritiko barik ulertzen ditu hitzak. Hitz elkartuetako [marratxo](#) [ere ez](#) da beharrezkoa. Era berean, ez da beharrezkoa hitzak bereiz ala dena batera idazten diren jakitea, aplikazioak bietara ulertzen ditu eta.

[Erantzuna taula-lerro gisa](#) agertuko da. Erantzun bat baino gehiago egonez gero, beste horrenbeste lerro agertuko dira.

[Fitxa osoa](#) ikusi nahi izanez gero, ezkerreko [lupa](#) sakatu behar duzu. Fitxan, hainbeste informazio aurki dezakezu, hizkuntza bakoitzeko ordainez gainera: hitzaren jakintza-gaia zein den, jakingarriak, adibideak, laburtzapenak, data eta beste fitxa batzuekiko lotura.

[Kontsulta zehatzak](#) egin nahi izanez gero, [jakintza-gaia](#) aukera dezakezu. Gai batzuetan [azpigaiak](#) bereizi ditugu, are bilaketa zehatzagoa egin ahal izateko. Hizkuntzen laukietan ezer idatzi ezean, dena delako gaiari edo azpigaiari dagokion [zerrenda osoa](#) eskura dezakezu.

HIKEAn [laburtzapenak](#) ere kontsulta ditzakezu, dagokien laukian idatziz gero. Euskarazkoak ez diren laburtzapenak, izar batez markatuta ikusiko dituzu. [Egun seinalatuak](#) kontsultatzeko, hila edo hila eta eguna idatzi behar dituzu, zenbakiz, dagozkien laukietan. Fitxa osoa bistaratzen denean, dena delako egunari buruzko esaerak aurki ditzakezu, egotekotan.

HIKEAren datu-basean [25.000 fitxa](#) baino askoz gehiago daude, hogeitaz gaitan banatuta. Merezki du gaiotako batzuen gainean zenbait ohar egitea.

1. Geografia: toponimoak kontsultatzeko, «Gaia (1)» eremuan «Geografia» [markatu behar](#) duzu nahitaez. Gai honen barruan hainbat zerrenda bildu ditugu (munduko herrialdeak, Euskal Herriko ibaiak, basamortuak, Euskal Herriko hiriburu batzuetako kaleak...). Informazio horren iturria [Euskaltzaindia](#) denean, hala jakinarazi dugu fitxan, «erreferentzia» atalean. Hainbat kasutan datuak Eusko Jaurlaritzaren [EIMA](#) programak prestatutako zerrendetatik jaso ditugu, eta hala dago adierazita «erreferentzia» atalean.

2. Biologia: mundu osoko bizidunen izenak bildu ditugu gai honen barruan, dokumentaletan agertu ahala. Izen asko [Elhuyar](#) erakundeak argitaratutako zerrendetatik jaso ditugu, eta hala dago adierazita «erreferentzia» atalean.

3. Kolokiala: lagunarteko hitz eta esamoldeak kontsultatzeko, «Gaia (1)» eremuan «Hizkera kolokiala» [markatu behar](#) duzu nahitaez. Fitxa gehienetan euskara / gaztelania ordainak baino ez daude, baina zenbaitetan ingelesa ere ageri da.

4. Artelanak: filmen, musika-piezen, margolanen eta abarren izenak kontsultatzeko, «Gaia (1)» eremuan «Artelanak» [markatu behar](#) duzu nahitaez. Gai honetan bildu ditugun fitxetako asko ETBk bikoiztu dituen filmen izenburuei dagozkie, eta beste asko, Euskadi Irratiko 'Klasikoak Gaur' saioan aipatu diren konposizioei. Beste hainbat, Eusko Jaurlaritzaren [EIMA](#) programak prestaturiko zerrendetatik jaso ditugu, eta hala dago adierazita «erreferentzia» atalean.

5. Orokorra: beste gaietan toki jakinik ez duten hitzak eta terminoak bildu ditugu hemen, besteak beste, bikoizketan azaltzen zaizkigun asko eta asko.

ARGIBIDEEN BILAKETA

Kontsultatu nahi duzun hitza («mugagabea», «dagokionean», «aditza», «azentua», «laurden», «erakusleak», «adierazi»...) [laukian](#) idatzi behar duzu. Ondoren [bilatu](#) botoia sakatu.

Hitz hori duten eskuliburuko [orri guztiak](#) kutxa gris antzera agertuko dira. Interesatzen zaizun orria osorik bistaratzeko, kutxa grisaren gaineko [izenburuan klik egin](#) behar duzu.

Nahi izanez gero, [bilaketa aurreratua](#) egin dezakezu. «Kontsulta aurreratua» sakatuz gero, [aurkibide kontzeptuala](#) agertuko zaizu, hau da, eskuliburuaren aurkibidea agertuko zaizu.

Eskuliburuan, alegia, hedabideetako hizkeraren gramatika, [bost kapitulu](#) bereizi ditugu, urratsez urrats erakusteko zelan prestatu irratirako eta telebistarako [albiste-testu bikainak](#). Hauek dira bost kapituluak.

1. Albiste-testu bikainek hiru bereizgarri dituzte: albiste-testuen [ezaugarriak](#)

2. Albiste-testu bikainak arretaz taxututa daude: egitura eta [antolamendua](#)

3. Albiste-testu bikainetan arretaguneak bost dira: [nor](#), [zer](#), [noiz](#), [non](#), [zergatik](#)

4. Albiste-testu bikainetan zehaztatzeko datuak ematen dira: [eduki nagusiak](#)

5. Albiste testu bikainak eragozpenik gabe gauzatzen dira ahoz: [ahoskera](#) eta [doinuera](#)

Kapitulu bakoitzaren barruan [hainbat atal](#) bereizi dira. Atal bakoitzak [hainbat argibide](#) biltzen ditu, batzuk deskribapen gisa, eta beste batzuk aholku gisa. Argibideen zerrenda ikusteko parentesi barruko [gurutzean klik egin](#) behar duzu.

Interesatzen zaizun argibidea ikusteko, egin klik testuaren gainean. Argibideari dagokion orria irekitzen denean, dena delako azalpenez gainera, [adibideak](#) ikusiko dituzu. Adibideetan [laranjaz](#) markatuta dagoena txarragotzat jotzen dugu, ez hain egokitzat. EITBn hobesten duguna [urdinez](#) markatuta ikusiko duzu.

Adi, beraz. Laranjaz markatuta egoteak ez du esan nahi esaldia okerra denik. Eskuliburuan proposatzen den bikaintasun-ereduarekin bat ez datorrela esan nahi du.

Kontsulta aurreratua egiteko bigarren aukera [aurkibide gramatikala](#) da. Aurkibide horretara sartzeko, dagokion [hegalean klik egin](#) behar duzu.

Bigarren aurkibide hau gramatika liburuetan ohikoa den eran dago antolatuta. Lehen kapituluari [izena](#) aztertzen da; bigarrenean, [aditza](#); hirugarrenean, [sintaxia](#); laugarrenean, [lexikoa](#), eta bosgarrenean, [ahoskera](#).

Berrito ere, kapitulu bakoitzaren barruan [hainbat atal](#) bereizi dira. Atal bakoitzak [hainbat argibide](#) biltzen ditu, batzuk deskribapen gisa, eta beste batzuk aholku gisa. Argibideen zerrenda ikusteko parentesi barruko [gurutzean klik egin](#) behar duzu. Interesatzen zaizun argibidea ikusteko, egin klik testuaren gainean.

ESAPIDEEN HIZTEGIA

Kontsultatu nahi duzun esapidea («aintzat hartu», «a coro», «llevar una venda en los ojos» «zainera joan», «gogoz eta bihotzez», «nadar contra la corriente»...) [laukian](#) idatzi behar duzu. Ondoren, jatorri-hizkuntza eta helburu-hizkuntza markatu behar dituzu: edo «eusk. / gazt.», edo «gazt. / eusk.». Azkenik, «[bilatu](#)» botoia sakatu.

Ez da beharrezkoa esapidea osorik idaztea; [nahikoa da hitz bat](#) edo hitz baten zatia idaztea.

Kontsultarekin bat datozen erantzunak zerrenda-kutxa batean agertuko dira. [Korritze-barra](#) erabiliz, zerrendan gora eta behera egin dezakezu, interesatzen zaizun esapidea aurkitu arte. Aurkitutakoan, [klik egin](#) gainean.

HIZTEGI BILAKETA

Kontsultatu nahi duzun hitza [laukian](#) idatzi behar duzu. Ondoren «[bilatu](#)» botoia sakatu. [Ez da behar dieresirik](#) jartzea, aplikazioak berdin ulertzen baititu «u» eta «ü» letrak.

[Erantzuna taula-lerro gisa](#) agertuko da. Erantzun bat baino gehiago egonez gero, beste horrenbeste lerro agertuko dira.

[Fitxa osoa](#) ikusi nahi izanez gero, ezkerreko [lupa](#) sakatu behar duzu. Fitxan, hainbeste informazio aurki dezakezu: hitzaren forma estandarra, estandarra zehazteko zein erreferentzia erabili dugun, hitzaren kategoria, erabilarauak, esanahia, eta adibide bat, pastoralen batetik jasoa.

Adibideak bere horretan aldatu ditugu. Esaldiak ulertzen laguntzeko, puntuazio zorrotza aplikatu diegu, eta zein pastoraletatik eta zein ahapalditatik jaso ditugun adierazi dugu «erreferentzia» laukian.